

Ekialdeko Timor → Hamar urte autodeterminaziorako erreferenduma egin zela



Timortarren borroka urte urte

- **1975eko azaroa.** Independentzia aldarrikatu zuen Fretilinek, Ekialdeko Timor Independententearen Aldeko Fronte Iraultzaileak.
- **1975eko abendua.** Indonesiak Ekialdeko Timor inbaditu zuen, komunismoaren aurkako borroka aitzakiatzat hartuta.
- **1981.** Fretilin frontearen adar

armatuko buru izendatu zuten Xanana Gusmao.

- **1991.** Santa Cruzeko hilerriko sarraskian 100 eta 500 lagun artean hil zituzten.

- **1999ko maiatza.** Ekialdeko Timorren erreferenduma egitea onartu zuen Indonesiak.

- **1999ko abuztuaren 30a.** Herriarren %98k hartu zuten par-

te galdeketa, eta %78k baiezaren alde egin zuten.

- **1999ko iraila.** Jakartak ez zituen emaitzak onartu, eta militarrek kalera irteten ziren. Milatik gora lagun hil zituzten. Herriarren laurdenak ihes egin zuten. Gerra legea ezarri zuten. Nazioarteko tropak iritsi zirenean, militarrek ihes egin zuten.

- **2002ko maiatzaren 20a.** Independentzia osoa lortu zuen herrialdeak, eta Xanana Gusmao izendatu zuten gobernu-buru.

- **2008ko uztaila.** Egiazen Bartzordeak 1999an izandako hilketen erantzule egin zuen Indonesia, eta barkamena eskatzea galdegin zion.



Liquiça eskualdeko bi emakume, Metir herrixkan, Ekialdeko Timorreko jantzi tradizionalak soinean ditzuzela. ASIER GOGORTZA

Europarren atzaparretatik askatu ostean, Indonesiarenetan erori ziren timortarrak, 75ean; gogor borrokatu behar izan zuten lapurtutako burujabetasuna berreskuratzeko.

Ustekabeko galdeketa baten kronika

Asier Gogortza / Xabier Erkizia Dili

Milioi pasatxo biztanle ditu Ekialdeko Timorrek. 1975ean Portugalen kolonia izateari utzi eta burujabetasuna aldarrikatu zuen. Baina laburra izan zen errepublika jaioberriaren ibilbidea, bederatzi eguneko bertzetik ez. Denbora horren buruan, Indonesiako armadak herrialdea indarrez hartu zuen. 24 urte luze iraun zuen Timorko okupazio militarrek, tarte horretan nazioartek ez ikusiarena egiten zuela.

Inor gutxi espero zuenean, ordea, NBEren erabakiz ailegatu

zen erreferenduma. Krisi ekonomiko eta sozial latzaren ondorioz, nazioartearen laguntza beharrezko zegoen Indonesia, eta men egin bertze irtentzerik ez zuten izan. Jakartak baldintza bakarra jarri zuen galdeketa egitearen trukean: prozesuaren zaindaria Indonesiako armada izatea. Azeria oiltategiaren erdian libre uztea, inondik ere. Eta NBEk onartu egin zuen eskaria.

Apiriletik abuztura bitartean 200 lagun baino gehiago hil ziren milizien erasoetan. Kontsigna garbia zen: «Bila itzazue, harrapa itzazue, eta kontra egiten badute, garbitu itzazue». Autonomiaren aldeko milizien buruzagiaren hi-

tzak dira, erreferenduma egin baino lau hilabete lehenago errandakoak. Egun seinalatua hurbildu ahala hain zen jasanezina tentsioa, non timortar anitzek mendira ihes egin baitzuten beren hiruetara. Beren izaera katolikoaren erakusle, arroparik dotoreenak jantzita atera ziren, baina elizara joan partez hautesontzietara jo zuten lerro-lerroan. Galdeketa parte-hartzea erabatekoa izan zen: %98koa. Timortarrek argi zuten erreferenduma hil edo biziko afera zela, eta emaitzek ez

zuten zalantzarako tarterik utzi: %78k independentziaren alde bozkatu zuten.

Ospakizunerako garaia behar zuena, ordea, Ekialdeko Timorren historiako pasarterik beltzenetarikoa bihurtu zen. Indonesiaren aldeko miliziek ia herrialde osoa suntsitu zuten. Ordu gutxiren buruan Dili hutsik gelditu zen. Etxeak eta eskolak erre eta harrapatzen zituzten biztanleak nahiz nazioarteko begirale eta kazetariak hil zituzten nonahi. Baste iraun zuen oldarraldiak, irailaren 22a arte, nazioarteko tropak Timorren sartu ziren arte.

Ia hiru urte geroago, 2002ko apirilaren 14an, bozkalekuetara dei-

tu zituzten berriz ere herritarrak, gobernu osatzeko. Orduko hartan bai, beldurrik gabe bozkatu ahal izan zuten eta urte bereko maiatzaren 20an independentzia osoa lortu zuen Ekialdeko Timorrek.

Egun, herrialdea eraikitzen ari dira pixkanaka. Gobernuko ministerio bakoitzak NBEk bidalitako kontseilariak ditu laguntzaile gisara. Gobernu kanpoko erakundeak zientzian dira herrialdean. Nazioarteko poliziak ere bazter guztietan ikus daitezke Dili karriketan. Segurtasuna bermatzeko beharrezkoa dela onartzen dute herritarrek, oraindik ere ez baitira fio indonesiarrekin.

Heroi ezezagunak

«Zertan aldatu du zure bizitza Timorren independentziak?», galdera bota diogu Pedro Lebreri, bere aterpetxean ostatu eman digun 67 urteko gizonari. «Elkarrizketa hau egiten aritzea eta Intelkoak (Indonesiako zerbitzu sekretukoak) etxeko atarian ez egotea da oraindik gehien harritzen nauena». Timor oraindik portugaldarren menpeko kolonia zela sortu eta hazi zen Pedro, hitz egiten duen portugesez garbiak aditza ematen duen bezala. Indonesiaren okupazio garaian informatzaile lanetan aritu zen erresistentziarekin, «oihanetik zetozkidan mezuak Timortik kanpora ateratzea zen nire lana». Okupazio urteetan Vila Harmonia izeneko aterpetxea eraiki zuen, ofizialki Timorrera zetozen turistak hartzeko, baina, berak harro dioenez, kanpotik ailegatu ziren ekintzaile eta kazetari urriek aterpe emateko asmo ezkutuarekin. Han ezagutu zituen Max Stahl eta Peter Gordon, munduari Timorko egoera latzaren berri eman zioten lehenbiziko kazetariak. «Indonesiako militarrek kate motzean lotuak izaten zituzten kazetariak, eta gu arduratzen ginen haiek grabatutako irudiak herrialdetik ateratzea». Independentzia lortuz geroztik, Pedrok bezalaxe beste hainbatek nabarmendu digute lan handia dagoela egiteko. «Arazo handiak ditugu, baina kontent nago independenteak garela, orain behintzat geronek moldatzen ditugu etxeko arazoak».